

bidégileak



Luis Jauregi Jautarkol (1896-1971)

Egilea:

ELIXABETE PEREZ GAZTELU

Periko konfiteroaren eta Xeledoniren semea

Luis Ramon Jauregi Etxenagusia Errenterian sortu zen 1896ko ekainaren 21ean (Aitzolen urte berean), San Luis egunean. Aita Pedro Ignazio Jauregi Etxeberria zuen, Aramako; ama, berriz, M^a Luisa Zeledonia Etxenagusia Imaz, Xeledoni, errenteriarra. Izan zituzten sei seme-alabetan bigarrena zen Luis.

Oso familia ezaguna zen garai hartako Errenteria txikian –egin dezagun kontu orain 40.000 biztanle dituen herriak 1900 inguruan 4.000 zituela– Luisen aitak janari-denda zuelako herriko plazan. Izengoitirik ez zuen herritarrik ia



Luis Jauregi Etxenagusia *Jautarkol* (1896-1971)

ez zen orduan eta Luisen aitari ere jarri zioten berea: Periko konfiteroa.

Orduko Errenteria txikia izanagatik ez zen nekazari giroko herria, XIX. mendeko industrializazioak bete-betean harrapatu baitzuen: «Gipuzkoako Manchester» esaten zioten. Luis Jauregi jaio zen urtean honako lantegiak zeuden, besteak beste: Gipuzkoako lantegirik garrantzitsuenetakoa zen «Kaputxinoetako» (Real Compañía Asturiana de Minas),



Pedro Ignazio Jauregi (*Periko konfiteroa*)
eta Mª Luisa Zeledonia Etxenagusia (*Xeledoni*), Luis Jauregiren gurasoak



Jautarkolen sortetxea



Maritxu Jauregi (arriba) eta Juan Fernandezeko ezkontza. Zutik ezker-eskuin: Luis, Esteban (anaia), senar berriaren (Juanen) arreba, Antolina (arriba), Jesus (anaia), Modesto (anaia), senar berriaren aita. Eserita: Xeledoni (ama), senar berriaren ama, Maritxu eta Juan ezkonberriak, Pedro Inazio (aita)

beruna, zilarra... lantzen zituena, Xenpelarrek lan egiten zuen «Fabrika handia» (Fábrica de Lino), maindireak eta egiten zituena, «Lanera», artilea lantzen zuena, –hemengo langile izan zen Koldo Mitxelena ospetsua gerra sortu arte– «Irin-fabrika», «Olibet» galletena, «Papelera»...

Baina industri giro berri horretan bertsolari-tzak ere bazuen tokia. Xenpelar (1869 hila zen) handiaren urratsetan, iloba zuen Joxepa Anttoni Aranberri Petrirena, Zapiraindarrak (Jose Bizente aitonagandik hasita, Joxe eta Juan Kruz semeak, Mañuel eta Xalbador (Ataño) ilobak), Salaberria, Elizegi, Berra



Xenpelar. (Antonio Valverde)

(*Telleri txiki*), Zabaleta, Txirrita, Saiburu eta beste makina bat bertsolarik bere saioak egiten zituzten.

Kultura-gizonik ere ez zen falta. Olerkariak zirela, J. Ignazio Uranga, E. Astibia (*Errenderi Aba*), E. Elizetxea, J. Elzo; antzerkigileak zirela: R. Illarramendi...

Giro bizi eta era askotako honetan hazi zen Luis Jauregi.



Errenderiako Gamon Zumardia («Zumardi handia»). (1907)



Foruen plazan dantza-txapelketa. (1922)

Jautarkolen lehen urratsak

Lehen eskola-urteak Erreterian egin ondoren, hamahiru bat urte zituela euskal literaturan horren garrantzizkoak izan diren beste hainbat bezala, Santanderreko Comillasa joan zen ikastera, jesulagunen ikastetxe nagusira. Euskaditik aldentzeak sekulako mina sortu bazion ere, erabaki sendoa hartua zuen: ezereen aurretik, Jauna. Honela dio 1915eko «Agur Aberria!» bere lehen olerki argitaratuan:

Agur Aberriya. Berriz atzerrira
bai-nua gogoa berriz puzkatuta.
Barkunde latzak,
loturik almenak
kate zerutarrez, Zu'gandik narama.
Euzkadi baño len Jauna daukagu-ta.

Olerki honetan erabili zuen lehen aldiz *Jautarkol* izengoitia, garai hartako usadioari jarraituz. Izen-deituren lehen silabak elkartuta asmatu zuen (**JAU**regi'**TAR KOL**-dobika) gerora euskal literaturan geratu den izena.

Comillas: Euskal olerkarien hazitoki

Comillaseko giroak baretu bide zuen Jautarkolen herrimina. Han ezagutu baitzituen Nemesio Etxaniz (1898), Jose Ariztimuño *Aitzol* (1896), Jokin Zaitegi (1906), Andima Ibiñagabeitia (1906), Joseba Markiegi (1894)..., eta, batez ere, Nikolas Ormaetxea, *Orixe* (1888). Orixe «maisutxo» zebilen uni-bertsitate hartan eta, beste irakasgai batzuekin batean, literatura eta euskara erakusten zien han zeuden ikasle euskaldunei. Orixe erakarri zituen gazte haiek «euskararen sorora»: urteen buruan gizon hauen guztien eragina berebizikoa izan zen euskal literaturan.

Luis Jauregik bazekarren berez literaturazale-tasuna, baina Comillasen izan zuen aukera



Luis Jauregi apaizgai zela

barrengo hazia ernatu eta azkenean loratze-ko. Jose M^a Estefania literatura-irakasle euskaltzalearen eskoletan erdal poesiak irakurtzen zituzten, bai klasikoak (Frai Luis Leongoa...), bai geroagokoak (Espronceda, Bécquer, Verdaguer, Gabriel y Galán...) eta badirudi lan hauek Jautarkol olerkarigaiaren barreneraino iritsi zirela. Baina Jautarkolek bere benetako sentimendu sakonak euskaraz adierazi behar zituen: eskoletako erdal olerki eder haien antzekoak egingo zituen, baina euskaraz. Orixe harturik gidari hasi bide zituen olerkigintzako lehen urratsak.

Orduko aldizkari-egunkarietan –*Euzkadi, Euskal Erria, Irugarrengo Prantziskotarra, Argia, Zeruko Argia...* – euskal irakurleak gero eta maizago irakurtzen hasi ziren Jautarkol olerkari gazteak sinatutako olerkiak.



Jautarkol apaiz gaztea

Buradon Gatzaga. Euskal pizkundearen hasiera

1921eko otsailaren 13an apaiztu zen; 25 urte zituen. Baina ez zituen ikasketak hor bukatu: Zuzenbide kanonikoan lizentziatu eta Teologian doktoratu zen.

Gipuzkoak, Bizkaiak eta Arabak Gasteizko elizbarrutia osatzen zuten orduan. Garai haie-tan ohitura zen Gipuzkoako apaiztu berri gehienak Arabara bidaltzea, apaiz lanetako lehen urteak han igaro ondoren atzera Gi-puzkoara itzultzeko. Luis Jauregi ere Arabara bidali zuen Leopoldo Eijo Garay gotzainak, 400 bat biztanle zituen Buradon Gatzaga (Salinillas de Buradón) herrixkara. Badakigu gutxienez 1925eko ekaina arte han izan zela, batzuetan lanaren azpian non idatzi zuen jar-tzen baitzuen.

Aipatu ditugun aldizkarietan eta beste ba-tzuetan olerkiak idatzi ez ezik, urte hauetan *Rentería, Euskal Esnalea* aldizkarietan, besteak beste, erdal eta euskal artikulua plazaratzen ere hasi zen: Luis de Jáuregui, eta Jauregi'tar Luis edo Jauregi'tar Koldo izenak erabili zituen hurrenez hurren erdal eta euskal prosa-lanetarako. Olerki-sariak irabazten ere orduan hasi zen.

Lehen ipuinak ere garai honetan argitaratu zituen: *Egizko edertasuna* (1923, Euskal-tzaindiak saritu eta argitaratua), *Ipuiak* (1924).

Altzo Muño: «Tolosako taldetxo»

Bizibidearen hurrengo urratsek Gipuzkoako Altzora eramán zuten. 2,27 metro luze zen Miel Joakin Eleizegi «Altzoko handiaren»



Euskarazko ikasle eta apaiz lagunekin, Altzon, 1932an. Zutik Aitzol, Jautarkol. Eserita: Mirentxu Irujo, Mari Zabala (Jose Antonio Agirreren andregai), J. A. Agirre, Pio Montoia



Luis eta Antolina eztei-bidaia Altzora egin zuten Maritxu Laborda eta Jesus Jauregirekin

sorlekura. Urte gutxiren buruan erdara besterik egiten ez zen Arabako herrixkatik Altzo-Muño erabat euskaldunera aldatu zen bizitzera On Luis. Zazpi bat urte eman zituen Jautarkolek Altzon, 1926tik 1933ra; urte ezin garrantzizkoagoak Jautarkolen ibilbidean. Altzo bilakatu zen orduko euskaltzale askoren topaleku: Maria Zabala (gero lehendakari izango zen Jose Antonio Agirreren andregai), Maritxu Irujo (Manuel Irujoren arreba) Jautarkolen etxera joaten ziren euskaraz ikastera. Jose Antonio Agirre bera –Jautarkolek oso estimatzen zuena–, Lizardi, Antonio Labaien, Pio Montoia, Migel Anjel (Guamgo gotzain misiolaria), Dionisio eta Anizeto Olano Galarraga anaiak, kaputxinoak hirurak, eta beste maiz joaten ziren Altzora. Aitzol ere maiz joaten zen meza nagusia ematera.

Urte horietan joan zen irabazten Jautarkol euskal literaturan eta euskal kulturaren eskuratu zuen izena. *Argia*, *Euskal Esnalea* aldizkariak antolatutako olerki-lehiaketetan sari ugari irabazi zituen, Aitzolek zuzentzen zuen *El Día* egunkarian ere artikulu franko argitaratu zituen, euskaraz eta erdaraz. Baina lan guztien gainetik 1929an argitaratu zuen *Biozkadak* olerki-liburuak ekarri zion entzutea eta ospea Jautarkoli.

Biozkadak: «Euskal olerti jai»-en akuilua

Sekulako oihartzuna izan zuen liburuak, zerbait berri baitzekarren euskal poesiaren alorrera. Hala aitortu zuten ordukoek eta hala ikusten dute orain ere euskal literaturaren aztertzaileek. Baina beste ondoriorik ere ekarri zuen liburuxka hark: euskal olerkigintzan ez ezik euskal literaturan eta euskal kultura zabalean ere hautsa harrotu zuen.


Gogoan izan behar dugu urte hauetan, hain justu, Aitzolen eta Lizardiren bultzadaz batez ere, 1927an sortua zen *Euskaltzaleak* erakun-

dea (Lizardi, Aitzol, Labaien...) buru-belarri zebilela bere egitasmo euskaltzaleak gizar-teratu nahian. Liburuaren oihartzuna zela medio, *Euskaltzaleak* taldeak pentsatu zuen Jautarkol omendu behar zuela. Horren kariaz antolatu zuten lehen «Euskal Olerti Jai» Erreterian, Jautarkolen sorlekuan, hain zuzen ere, 1930eko ekainaren 1ean. Lauaxetaren «Maitale kuttuna» olerkiak eraman zuen lehen saria.

Sekulako ospakizunak egin zituzten: hitzaldi, dantza eta besteren artean, Tomas Garbizu lezoarrak konposatutako «Cum júbilo» me-



Lehen «Euskal olerki eguna». Euskaltzaleen artean, Lizardi, Orixe eta Erreterio alkate Gregorio Goikoetxea. Erreteria, 1930/06/01



Yakintza aldizkarian 1935ean argitaratua



Lehen argitaraldia (1929)



«Euskal olerti jai» Bedoñan, Loramendiren omenez (1935). Jautarkol saritutako olerkia jendaurrean irakurtzen. Entzuleen artean Guam-go gotzaina eta Aitzol



Jautarkol «Euskal olerki jai»-ko lehen sariaren oroigarria zen urrezko haritz-hostoa, Olano gotzainarengandik hartzen, Bedoñan (1935)

za kantatu zuten eliz nagusian. Erretereria euskaltzaleen biltoki bilakatu zen egun hartan.

1930etik 1936a arte urtero-urtero antolatu ziren jai horiek. Irabaztunen izenak ikusi besterik ez dago ohartzeko zein garrantzizkoak izen ziren olerki-lehiaketa haiek: Lizardi (1931), Loramendi (1932), Jokin Zaitegi (1934)... Bedoñan 1935ekoa, Loramendiren omenez:

Jautarkolek irabazi zuen «Maite opari» olerkiaz. *Euskaltzaleak* erakundeak aurreko urteko olerki onenak jasotzen zituen *Eusko Olerkiak* bilduma argitaratzen zuen urtero, orduan nor zen Aitzolen hitzaurrea zeramala. Bilduma hauetan ez dira gutxi Jautarkolen lanak: 1932koan «Maite damu», 1933koan «Legortea», «Barren izketa», «Errenderiko Madalen Deunaren elizatzxoan»...

Anoeta: susperraldia

1933 urtean Tolosa ondoko Anoeta herrixkan dugu, Mateo Muxika orduko gotzainak bidalia. Anoeta eta Altzo orduan 400 biztanle inguruko herri txikiak ziren biak, baina bazegoen aldea bere artean: Altzok ez bezala, Anoetak trena bazuen. Trenari esker Altzon zituen harremanak sendotzeko modua izan zuen Jautarkolek: «Tolosako taldetxoa» askotan joaten zitzaion.

Primo de Riveraren diktaduraren azken urteetan, diktadura samurtu zenean, eta II. Errepublikak iraun zuen aldian (1931-1936) –alegia, bi diktaduren arteko epe laburrean–, han eta hemen ikusten dugu Jautarkol: apaiz-zereginenez atzendu gabe, olerkiak, artikulua plaza-ratzen, literaturari buruzko eztabaidetan esku hartzen, euskararen alde hitzaldiak ematen,

«Euskararen eguna» eta beste antolatzen...; hitz batean esateko, Pizkundean bete-betean murgilduta. Jautarkol idazlearenak ez ezik, Jautarkol euskal kulturaren suspertzailearen urte jorienak ditugu hauek, dudarik gabe. Euskal kulturarekin zerikusia zuen zeinahi ekitalditan, hor dugu Jautarkol, askotan ez lehen lerroan, bai besteen itzalean, baina beti hor, besteen ondoan gurdi berari tiraka.

Lagun-adiskide eta gogaide, asmoetan uztarkide, zein zituen jakiteko, lan asko (olerkiak batez ere) nori eskaintzen dizkion begiratzea argigarria izan daiteke: Sabino Arana Goiri, J.A. Agirre, Aitzol, Orixe, Lauaxeta, Lizardi, Telesforo Monzon, Bonifazio Etxegarai, Nafarroako «Euskeraren adiskideak» bazkuna, Errenteriako «Gazte-elkartea»... Ezin esan Jautarkol esker txarrekoa zenik.

«YAKINTZA» Número 217

Cuota anual diez ptas.

Sr. D. Luis de Jauregui (Párroco)

Domicilio ANOETA (Tolosa) calle _____

número _____ piso _____ provincia de Guipúzcoa

Fecha de la inscripción I de Enero de 19 33

Observaciones: Colaborador

Yakintza aldizkariko harpidedun-txartela. Anoetan dago erretore 1933 urteberrirako

Gerratea

Frankisten alde borrokatu ziren erreketeeek Nafarroatik sartu eta 1936ko irailaren 13an ia Gipuzkoa osoa mende hartu zuten. Honen ondorioz Jautarkolen lagun askok Iparraldera ihesi joan behar izan zuten: Pio Montoiak, Jautarkolen ondoren Altzoko erretore izan zen Sekundino Rezolak, gero harrapatu eta heriotza lazarria izan zuen

Aitzolek eta beste asko eta askok alde egin zuten. On Luis Anoetan geratu zen, ez baitzuen uste ihes egiteko adinako arrazoirik bazegoenik, bere adiskide Aitzol ez bezala, Jautarkol ez baitzen politikagintzan nabarmendu. Baina, usteak erdi ustel; laster harrapatu eta Tolosako Eskolapioetan sartu zuten preso. Beharrik, apaiz karlista batek libratzea lortu zuen.



Hernaniko erretore den Manolo Odriozolaren meza berriko bazkarian, apaiz berriaren ama ezkerrean duela

Aratz-Matxinbenta. **Urrestilla: Isilaldi luzea**

Lauaxetak, Aitzolek, Martin Lekuonak (On Manuel Lekuonaren anaia) eta beste hamaiak baino zori hobea izan zuen Jautarkolek: ez zuten hil, kartzela-zigorrik ere ez zuen izan; izan zuen, ordea, bestelako zigorrik. Orduko zulo beltzean aski zen euskaltzale izatea zigorra jasotzeko, eta Jautarkolek ere izan zuen berea: Lauzirika gotzain frankistak Aratz-Matxinbenta, ehun lagun inguru bizi zituen «errekazulo ospelera» zokoratu zuen, Rafael Albisu apaiz errenteriarrekin batean. Hiruzpalau urte egin zituen Beasain alde horretan Azpeitiko Urrestillara joan arte.

Urrestillan lehenbizi apaiz laguntzaile eta gero erretore izan zen. Oso hitzaldi entzungarriak egiten zituen, jendea urrutitik ere joaten omen zen bere sermoiak entzutera. Baina lagun giroan egotea ere atsegin zuen, herriko jendearekin hizketan. Hizkera mamitsua, gozoa zuela gorde dute gogoan ezagutu dutenek. Bazekien hizkera mailak, mintzamoldeak bereizten: norekin nola, noiz goi mailakoa, landua, noiz lagunartekoa, hiztun trebea izaki.

Baina, gerrateak sekulako zauria utzi zion barrenean: argitara-lanei begira Matxinbenta eta Urrestilla isiltasunaren urteak izan ziren, deus argitaratu gabe pasa zituen Jautarkolek gerraondoko urte franko. 1936tik 1952a arte



Urrestillako eliz atean, organo berria bedeinkatu eta estreinatu zenean. Eskuinetik: Angel Amenabar apaiz laguntzailea eta Luis Jauregi, erretorea. Erdian Egaña, Azpeitiko alkatea, Aizpuru, jesuita sermoigile sonatua, Lapeira eta beste jesuita batzuk. Ezkerrean Olajaungo militarra eta Luzio Martinez Azpeitiko artzapezpikua, beste batzuen artean. (1950)

ez zuen olerkirik argitaratu. Adierazgarria da isilaldi luzearen ondoan, 1952an, olerki hauek eta Euskal Herritik kanpo (euskaldun erbeste-teratuek Guatemalan argitaratzen zuten *Euzko-Gogoa* aldizkarian) argitaratu izana: «Anai-agurra», «Anai-arteko Gudate-ondorean», «Anai-arteko Gudatean».

Hitz lauz ere, 1922tik 1936ra hirurogeita lau artikulu, gizarte-gaiez, asko, euskal literaturaz eta beste hainbat kontuz argitaratu zituen Jauregi'tar Luisek. 1943tik 1962ra lau besterik ez zituen argitara eman: bere sorlekuko aldizkarietan (*Renteria*, *Oarso*) horietako hiru:

Errenteriako zaindari Maria Magdalenaz, Xenpelarrez, «Jaungoiko-txiki» ipuintxoia eta *Euskera* Euskaltzaindiaren aldizkarian Lora-mendi olerkariari buruzko saiakera. Kopuruak ez ezik, gaiek ere argi asko erakusten dute gerratearen ondorea: samina barrenean, zentsura kanpoan. Gerrateak sekulako hatza utzi zuen Jautarkol idazle eta gizasemearengan, belaunaldi bereko guztiengan utzi zuen bezala. Baina hau aski ez dela, beste ondoriorik ere ekarri zuen: euskal literaturan etena, amilde-gia. Gerra aurratsuko urteetako giro eman-kor hura zeharo zapuztu zuen.




Eusebio Azkoitia, mutikotan akolito izana, Jauregi erretoreari bizkarretik helduta, meza berria eman zuenean. Vatikanon II. Kontzilioko garaia: elizgizon gehienek sotanak utzi zituzten

Zarautz. Itxaropena

1958an Zarauzko moja karmeldarren kapilau izendatu zuten. Hemen Patxi Unzurrunzaga, *Itxaropena* argitaletxeko nagusiarekin, honen seme Sabinekin, Basarri bertsolariarekin eta besterekin harreman handia izan zuen. Askotan elkartzen ziren irarkolan «hontaz eta hartaz» tertulian aritzeko: berezkoa zuen, bada, inondik ere, Jautarkolek jendarteko traturako isuria, kontu-esale amorratua izatea.

Baina urte hauetan ez zen egonean egon: olerkiak, saiakerak –Xenpelar bertsolariaren eta Loramendi olerkariaren gaineko lan sakanak–, ipuinak, itzulpenak... mamitu zituen. Azken hauetan, buruen-buruenik Camilo José Celaren *La familia de Pascual Duarte* eleberria itzuli zuen. Sabin Unzurrunzagak zirikatatu zuen, hain zuzen ere, idazle alferra zela aurpe-



Lehen argitaraldia (1967)

giratuta, Celaren lana itzultzera. 1967an *Itxaropena* argitaratu zuen.

Horrekin guztiarekin batean ez dugu bazterrean utzi behar Jauregik ez ziola bere herriari bizkarra eman: ez zen «hodeietan» bizi zen olerkaria.

Horren seinale dugu bere jaioterriari zion maitasuna. Hainbat artikulu idatzi zituen Erreneriako kontuez eta erreneriarrez: «Astibia'tar Jon Andoni. *Aita Errenderi* kaputxinoa, olerkari eta idazle», «Bertsolari nor zaigun: *Xenpelar* ereduz», «Sobre el progreso renteriano»... Olerkiak ere bai: «Errenderi nere jaioterriari», «Errenderiko Madalen deunaren elizatzooan», «*Xenpelar* bertsolariari», «Oda a Rentería», «A la memoria del historiador renteriano Don Juan Ignacio de Gamón, Pbro.»... Oso erreneriartzat zuen bere burua eta halaxe izan zuen azken hatsa eman zuen arte: testamentuan agindu zuen bere kaliza Erreneriako Jasokundeko Andre Mariaren eliza nagusiari uzteko.

Euskaltzaindiarekin ere harreman handia izan zuen. Lehen erdal artikuluan (1922) gaitzat euskararen batasuna hartu zuen: «Sobre la unificación del euskara». Hemen berariaz aitortu zion Euskaltzaindiari hizkuntza-kontuetan erabateko aginpidea eta Akademiak hartzen zituen erabakiei men egingo ziela. «Beti zegoen gertu nahiz eskatzen zioten idazlan bat osatzeko, nahiz hitzaldi bat eratu eta mintzatzeko. Eskabidea beretzat agindu



Jautakol Jaime Font Andreu gotzainarekin 1958ko uztailaren 2an


zorrotz izan», dio aita Santi Onaindiak. Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1965eko azaroaren 25ean.

Baina arrisku handiagoko ekintzarik ere egin zuen. 1960an Francoren bidegabekeria salatzeko agiri bat plazaratu zuten 339 euskal apaizek. Agiri hartan alderdi politikoak, sindikatuak, giza eskubideak, adierazpen askatasu-

na, euskara, Euskal Herriaren nortasuna... zapalduta zeudela, tortura bazegoela eta beste salatu zuten. Berebiziko zalaparta sortu zuen bai Espainian, bai kanpoan. Luis Jauregi sinatzaileetako bat zen.

Ikusten dugu, hortaz, Luis Jauregi eliz gizona, Jautarkol, bere literatura-isuria eta herriarizion maitasuna uztartu zituen gizona dugula.

Izaera

 ehen esana dugu oso hiztun trebea zela eta lagunarteko giroa atsegin zuela. Ezagutu zutenengan oso iritzi ona utzi zuen. Altzon akolito izan zuen eta orain apaiz den Frantzisko Lizarri-barrek honela dio: «Oso gizon gozoa eta alaia zen. Gizaseme egokia, dotorea; etxea ere dotore. Ona zen bai emateko, baina hartzeko ere bai. Bere kategoriari duintasunez eusten zion. Arreba Antolina eta Jexuxa neskamearekin bizi zen. Jauregiren etxean sartu ziren Altzoko lehen telefonoa eta irratia. Beti idazten aritzen zen. Idazle eta olerkari onaren fama zuen. Herriak onartua zuen eta aurrerapen handia izan zen herriarentzat».

Beste hainbatek ere gizon gozo eta jatortzat daukate, maitagarritzat, inorekin sesioa biltzen ez zuena, haserririk pizten ez zuena. Politikan nahiz beste gaietan berak bezala pentsatzen ez zuena errespetatzen zekiena.

Gozo izatea, baina, ez dezagun nahastu nor-tasun faltarekin. Lehen aipatu dugun agiria sinatu izanari eta besteri honakoa erants dakieke, Jautarkolen izaeraren adierazgarri: Sabino Arana Goiriren jarraitzaile eta miresletzat dauka bere burua –hari aitortzen dio euskal literaturara hurbildu izana–, baina, euskararen batasunaren auzira iristean, Jautarkolek eragozpenik ez du Sabin «hutsezina» ez zela esateko. Garbi dio Aranak bere garaian batasunaz esanak ez dituela bere egiten; eredu batu bakar bat behar duela euskarak biziko bada.

Pentsaera

Jautarkol apaiza zen, eliz gizona, baina gizon euskalduna ere bai. Jainkoaren eta bere herriaren zerbitzuan bideratu zuen bizitza. Kristau fedea bete zuen bere bizitza eta bizitza bera fede gabe ulertzen ez zuen. Sabino Arana Goirik, berriz, berebiziko eragina izan zuen bere pentsamolde politikoan. Jose Antonio Agirre Eusko Jaurlaritzaren lehendakaria oso adiskide zuen. Bi zutoin horien gainean eraiki zituen bizitza eta lanak eta horien erakusgarri gardena dira bere olerki-artikuluak.

Gizarte-gaiek kezkatzen zuten Jautarkol. Ideologia politikoak, gizarte katolikoaren eta zibilaren arteko harremanak, hezkuntza ulertzeko moduak, elizak gizartean bete beharreko eginkizunak eta esparruak, baserriaren eta herri-hirien arteko lotura... asko eta askotan ditu aztergai eta kezka-iturri.

Hondarrik hondarrean Jautarkol apaiz fededunaren begietatik aztertzen ditu auziok: kristau fedea da gizarte osoaren antolamenduaren funtsa. Hau guztia dela eta, gaurko jendeak ez bide du Jautarkol aurreraletzat joko. Ez gaitezen ahantz, dena dela, pentsamolde hori ispiatzen duten artikulu gehienak aski giro nahasian idatzi zituela: Boltxebikeen iraultza ez zen horren aspaldi gertatua (1917) eta Espainian ere gerra aurretsuko urteak kristau askorentzat aztoramendu urteak izan ziren: komunismoa eta sozialismoa benetako «mehatxutzat» zeuzkaten.

Baina atzerazaleztat jo duen horrek berak aitortu beharko du euskal kultura, literatura, euskararen etorkizuna eta beste idazgai dituenean, beste taxu bateko Jautarkol duela begi aurrean: berrizalea, aurrerabideari begira eta zabalik dagoena.

Soziolinguistika hitza asmatu aurretik Jautarkol soziolinguista agertzen zaigu. Argi ikusten du euskararen etorkizuna lehenik eta behin euskaldunen esku dagoela, erabiltzen ez badute galduko dela erremedio gabe, erabiltzea dela funtsezkoena: gurasoek seme-alabei erakustetik hasi eta eskoletara eta arlo guztietara zabaldu. Benetako mintzabide izatera iritsi beharra duela.

Euskarari prestigioa eman –jende ikasiari, gizartean «nor» den jendeari euskaraz mintzatzeko gonbita egiten dio berariaz–, nola gizarteratu, erdaldun jendea euskararen herrira nola erakarri (gogoan izan dezagun urte hauetan, industriak erakarria, kanpotik jendea etortzen hasia dela)..., hori guztia aztertzeke egitasmo zehatzak ere egiten ditu bere lanetan.

Euskararen geroak kezkatzen du Jautarkol, hizkuntza gabe gainerako guztia, herri izate bera, zainik gabe geratuko da eta; horrexegatik belzten du politikagintzan lanean bai, baina euskalgintzari muzin egiten dioten euskaldunen jokabidea.

Hizkuntzaren etorkizuna eredu batu (edo estandar) baten behararekin uztartuta ikusten du, esana dugu: gipuzkeran oinarritzearen

alde egin zuen berak, baina, beti ere, Euskaltzaindiak erabakia onartuko zuela eta onartu behar zela garbi utzita.

Euskal literaturak egitasmo horretan garrantzi berezia du. «Euskal elertiaren etorkizuna dela eta» 1932ko artikuluan zehazten du egitasmoa urratsez urrats: literaturarik ezean, herririk ez dago, baina literatura sendoa izateko irakurleak behar dira. Irakurleak hezteko, ordea, eskolak beharrezkoak dira; honek dakar testu-liburuak euskaraz sortu beharra. Baina eskola-liburuez gain, bestelako idaztiak ere ezinbestekoak dira. Idaztiak egiteko tresnak behar baina; bi aipatzen ditu zehazki: hiztegi oso on bat eta idazle guztiek elkar hartuta finkatutako eredu batu bakarra. Horren beharrezkoa den hiztegiak nolakoa izan behar duen ere zehazten du: Euskaltzaindiak egin beharko luke alde eta aldi guztietako euskal hitzak jasota eta beharrezkoa denean beste hizkuntzetatik maileguak egokituta.

Berriz ere ikusten dugu Jautarkol aske dabilela, ideologiaren kateak urratzen dituela. Sabindarra izanik ere euskal hiztegiaren mugak finkatzean ez du arantatar askoren

bidetik jotzen: ez die mailegu berriei aterik ixten, eta, gainera, jatorriz mailegu izanagatik, euskaras aspalditik errotoetako euskal hitz beteak direnak (*birjina, eliza...*) beldurrik gabe darabiltza, ez du horien ordezkotasunaz asma-ziorik (*neskuts, txadon...*) erabiltzen.

Eredu bakarra ere ez du euskalkien etsai moduan ikusten, osagarri baizik. Gainera, hizketan egiten omen zuen bezala, ongi berezitzen du estandarren eta euskalkien eginkizuna: zein, norekin, zertarako. Eta hau guztia, komeni da ez atzentzea, 1932an, garbizaleen eragina bizi-bizia zenean.

Egitasmo zabal horretan kokatzekoa da puri-puritan zeuden literaturari buruzko eztabaidetan esku hartzea. Jautarkol, gizarte-gaietan atzerazale den horrek berak, euskal olerkari aurrerazaleen (Lizardiren eta Lauaxetaren) moldeak onartu eta goraiatzeko ditu. Ez da, ordea, berrizalekeria hutsa; aurreko idazleak (Iturriaga...), ahozko literatura, bertsolariak ere oso gogoan ditu Jautarkolek. Litezkeen «bide guztien» alde mintzatzeko zaigu.


Denborak argi erakusten digu egitasmoetan intuizio onekoa zela, izan ere.

Jautarkolen izena batez ere olerkigintzari lotuta aipatzen da. Alderdi honek itzalpean utzi ditu beste hainbat alderdi interesgarri. Bere lanek erakutsiko digute Jautarkol olerkariaz ez ezik, saiogileaz, literatura-kritikariaz, itzul-tzaileaz, euskal kulturaren eta euskararen suspertzaileaz... ere hitz egin behar dela.

Jautarkolek euskaraz eta erdaraz idatzi zuen, baina barrenaren ispilu zuzenena diren olerkiak euskaraz egin zituen (150 inguru); erdaraz lau, lauak gorazarrak (Lezoko Santo Kristori bat eta beste hirurak Errenteriari).

Kantuetako hitzak eta saiakerak ere euskaraz besterik ez zituen egin.

Erdaraz batez ere orduan gori-gori zeuden gaien gaineko artikuluak eta literatura-kritika egin zituen. Kontuan izan behar dugu artikulu ia guztiak *El Día* egunkarian argitaratu zirela eta orduan jendeak ez zuela halako gaiak euskaraz irakurtzeko ohitura handirik. Nolanahi dela ere, erdaraz eginak euskararen mesederako egin zituela ezin ukatu.



Bigarren argitaraldia (1975)

Olerkaria

Jautarkolek olerki samurrak, jende askorengana iristeko modukoak egin zituen, bihotzera zuzenean zihoazen geziak: barrengo sentimenduak jorratzen ditu batez ere, erlijioa, ama, maitasuna, euskara, Euskadi...

Alabaina, *Biozkadak* lan nagusiak (1929) molde berriak ekarri zituen euskal olerkien baratzera: ez zen bertsolarien moldea, ezta gutxirentzako moduko poesia berrizale iraultzailea ere. Bertsolarien ekarriaz ahan-tzi gabe —On Manuel Lekuonaren *La literatura oral euskérica* liburu argitaratu berriaz (1936) edo Jautarkolek berak bertsolaritza-ren eta bertsolarien gainean hainbat artikulutan (1934, 1935, 1936) esanak irakurri bes-terik ez dago noraino estimatzen zituen jakiteko—, haien gaiak, bertso-txuak... utzi eta hegan egin zuen bere euskara txukunean olerkarien mailara. Jautarkol ezinbesteko igarobide bilakatu zen euskal poesiaren bila-kabidean: Jautarkolen olerkirik ezean nekez egingo zuen olerkigintzak gero Lauaxetak eta Lizardik ekarri zuten bide berriak saiatzea.

Bestelakorik ere egin zuen, ordea, euskaraz: A. Elduayenen musikaz kantatzeko hitzak (salmoak eta beste). Errenteriako ERESBIL, Euskal musikagileen artxibo nagusian gordeak daude partiturak.

Prosagilea

Sorlanetan lehenik eta behin aipatzekoak dira egin zituen ipuinak. Ipuin irakurterrazak, irakurtzen oso ohituta ez zegoen euskal irakurlearentzako modukoak: *Egizko edertasuna (ipuin luzea)* (1923), *Ipuiak* (1924, 1953), «Jangoiko-Txiki» (1962)...

Artikulu asko idatzi zituen, euskaraz eta erdaraz (55 bat). Lehen aipatu ditugun gizartegaietaz gain, badu Jautarkol artikulugileak behar adina azpimarratu ez den beste ezaugarri garrantzizkorik: (literatura)-kritikariarena, hain zuzen.

Bere garaian argitaratzen edo berrargitaratzen ziren lanez iritzia ematean ispiatzen ditu euskal literaturaz dituen iritziak, olerki-liburuak direla, antzerkiak direla, prosa-liburuak edo itzulpenak (eskola liburuak eta beste) direla.

Jautarkol bete-betean sartu zen bere garaiko literaturaren gaineko eztabaidan. Berehala ohartu zen Lizardiren handiaz («euskal literaturaren historian urrezko letretan gordeko da»), ez zuen eragozpenik izan Lauaxetaren «bide berriei» ongi etorria egiteko, erabat betetzen ez bazuen ere. Alegia, berrizaleen moldeak garai hartako irakurle gehienentzat urrun gertatzen baziren ere, Jautarkolek argi ikusi zuen euskal literaturak eta euskarak aurrera egingo bazuten berrizale hauen pre-

mia ere bazutela. Hiru bide ikusten zituen euskal lirikan: bertsolarien bidea, olerkari landu, goi mailako estetikazaleena, eta bietatik edanda zubi egiten duen tartekoa.

Olerkari guztiek ezin bide beretik jo, ezin denak goi mailan aritu, Lizardi edo Lauaxeta bezala; komeni ere ez. Bide guztientzat bazegoela tokia euskal Parnasoan garbi adierazi zuen. Areago, Lizardi miretsiagatik, Jautarkolek ere ez zuen bere burua «gutxi-erentzako olerkaritzat» jotzen, «askorentzat baizik».

Baina bere kritika ez zen arrazoirik gabeko laudorio merkea: zerbaitek asebetetzen ez bazuen, ez zuen estari gordetzen. Honen sei-

nale ekar dezakegu Lauaxetaren alderdi batzuk oso gogoko ez zituela edo Zubimendiren *Aberri-Oyuak* lanaz (1932) esatea ondo zoritu gabe argitaratu zuela, gehiago landu behar zuela jendartera atera aurretik.

Berriz ere esan beharrean gaude oso sen oneko, intuizio zuzeneko kritikaria dugula Jautarkol.

Saiakerak ere egin zituen. 1958an *Xenpelar Bertsolaria*. *Bizitza ta bertsoak* lana oraindik ere Errenteriako bertsolariaren berri izateko ezinbestekoa dugu. Oso goraiatu zuen Koldo Mitxelenak argitaratu zenean. Loramendi olerkariak eginak ere Euskaltzaindiaren lehen saria irabazi zuen 1960an.



Bigarren argitaraldia (1989)

Baina ez ditzagun ahaztu itzulpenak. Guztietan sonatuena Camilo José Celaren *La familia de Pascual Duarte*, *Paskual Duarte-ren sendia* bilakatu zuen, 1967an. Gaurko itzultzaileek estimu handian dute lan hau, jatorrizko literatura-testuari begirune guztiaz egina eta, aldi berean, gozamenek irakurtzekoa delako.

Arestikoa bezain ezagunak ez badira ere, olerki batzuk ere euskarara itzuli zituen.


Guztiak erakusten digu, hortaz, Jautarkol olerkariak ez duela Jautarkol agortzen.



1974ko omenaldiko txartela

Hizkera

Garbizaleen eragina hitz mailan aldizka nabari badakioke ere, garaiko beste batzuei ez bezala, ez zitzaion Jautarkoli atzendu norentzat ari zen. Horregatik saiatu zen hizkera ulerterraza egiten; ez zuen nahi «jende ikasiaren» eta herri xumearen arteko amildegia areago zedin; kontrara, irakurle samalda ugari zedin desio zuen, ahalik eta jende gehienak euskaraz irakur zezan. Baina horrek ez zuen eraman arduragabekeria erortzera. Erdiosten oso samurra ez den oreka erdietsi egin zuen Jautarkolek: hizkera landua eta aldi berean ulerterraza erabiltzea.



Jautarkolen sorta marduldua (1999)


Jautarkolen eragin nabarmenena olerkigintzan suma daiteke. Bidegile, bidehausletzat dauka Lekuona zaharrak, Hegoaldean batez ere, ordu artekoa ez bezalako beste olerki mota baten hasiera izan zen.

Beste askoren lekukoen ordezkari izan bitez Eugenio Agirretxe frantziskotar euskaltzale handiaren hitzok:

«(Biozkadak) liburu hark nire gaztetxo aroko bihotza sakon-sakonetik kolpatu zuen. Alde batetik, nire orduko afektibitate aldetik sentimendu on eta eder asko sortu zizkidan. Eta, bestetik, nire euskara zaletasuna piztu egin zuen. Liburuxka hura oso lagun bilakatu zitzaidan eta berari zor diot nire

ordutiko euskara lantzea. Zor handia diot benetan.»

Jautarkol bidegilea dugu, Aitzol eta beste batzuekin batean, itzalean bada ere, euskararen euskal kulturaren «propagandista», susper-tzailea. Baina Jautarkol gerrateak horren bortizki eten zuen lokarri baten kate begia ere badugu. Gure atzoa –urrutiegia, ilunegi geratu zaigun gure atzo hurbila– zinez nolakoa izan zen jakin nahi badugu, noraezean gure aurrekoek egin zutena, gogoan zerabiltena jakin beharrean gaude, gure aurrekoen zordun gara: Jautarkolen zordun gara.



Hilondoko oroigarria

Zarautzen hil zen 1971ko otsailaren 2an, 74 urte zituela, azken aldian argizaria bezala bizitza pixkana-pixkana urtzen joan ondoren. Lagun izan zituen mojek diote bere izaera bezalako heriotza izan zuela: goxoa. Santa Teresaren bertso sonatuak ahotan zituela itzali zitzaion bizitza: «Vivo sin vivir en mí, y tan alta vida espero, que muero porque no muero».

Bizi naiz, ez baina enegan,
ta hain nago goi-bizitza minez,
non hiltzen bainaiz hil ezinez.



Sortetxeko oroitarria

Zarauzko herriak esker onez kale bat eskaini zion, Franco hil ondoren. Bere Errenteria bihotzekoan ere badu plazatxo bat herriko harresi zaharren ondoan, «Nafarroako atean». Omenaldiak ere egin dizkio, 1974an lehena eta jaiotzaren mendeurrenaren itzalean bigarrena, 1996an. Azkenotan hitzaldien ondoan, Euskaltzaindiak oroitarri bat paratu zuen bere sortetxean. Omenaldiaren azken fruitua Jautarkolen lan sakabanatu guztiak jaso eta argitaratzea izan da, *Jautarkolen sorta marduldua*, oraingoan eta gerokoan irispidean egon daitezzen.



Jautarkol Plaza Errenterian

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Jose Jauregi Laborda*
- *Manuel Odriozola*
- *Auñamendi Entziklopedia*
- *Eugenio Agirretxe*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1866-5 (Lan osoarena)
84-457-1870-3

L.G.: VI-556/02

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística